

## AURKEZPENA

---

Sortzeko ahalmena gordetzen duen herria bizirik dago. Hala bada, Altza bizi-bizirik dagoen herria dugu, ondorengo lanak lekuko.

“Hautsa kenduz” bakoitzak osagai zahar eta berriak biltzen ditu. Lehenengoan artean, eta nagusia, lan guztiak biltzen duen haria: Altza. Berrero ere ospakizunen oihartzuna jaso du: 1997an Arzak jatetxeak 100 urte beteko ditu eta Herrera Kirol Elkarteak, 50. Aurrekoetan bezala, gure laugarren “Altza, hautsa kenduz” honek pertsona askoren borondateari esker ikusi du argia, liburu berriaren tinta usainak egindako lanaren izerdia estaltzen duelarik. Berrero ere aniztasuna da nagusi: ikerketa sakonak, eritzi pertsonalak, literatura testuak, etabar. Beste argitalpenen egitura ere mantendu dugu: artikulo bakoitzaren jatorrizko hizkuntza errespetatu da eta aurkezpen txiki bat, gazteleratua edo euskaratua, erantsi zaio.

Berriak, noski, lanak berak dira, baina baita lan horiek egiteko izan den maitasuna, gogoa eta indarra. Hona hemen, beraz, laugarren liburu honen osagai berriak:

Jaiak pregoi batez hasten omen dira. Gure liburua ere: 1996an berreskuratutako Donostiako Euskal Jaietan, J.M. IRIGOIENek botatako pregoia tintaz isladatua geratuko da, haizeak hitza eraman ez dezan.

Gurekin beti lanerako prest agertuz, B. BARANDIARANen begiek azken berrogeita hamar urteotan Larratxon eta Garberan izandako aldaketak aztertu dituzte.

K. IZAGIRREk gogoeta ederra eskainiko digu egungo Altza den “errealitate zabal, aunitz eta zaila”ri buruz eta berarekin bat gatoz. Guk ere “ez ditugu asko maite zuhaitz mota bakarreko basoak”.

Esan bezala, 1997an Herrera Kirol Elkarteak 50 urte beteko ditu. Zorion-tartaren kandelak bere sortzaileetariko batek jarriko ditu. J.A. IRIGOYENen oroimenaren esker, elkartearen hasieraren berri izango dugu.

Aurreko “Altza, hautsa kenduz”-en agerturiko artikulo batek abiapuntua eman dio L. GARMENDIari auzoko korresponsalaren lanaren gora-beherak azaltzeko.

C.DIEZen galdera argia da: Garberan irekitzekotan dagoen hipermerkatua bezalakoak, gizarte-berdintasunaren ikuspuntutik, aurrerapenak ala atzerapenak dira? Berak hausnarketarako hainbat puntu eskainiko digu; erantzuna, zuen esku.

Donostiako Udalak bere burua intsumiso agertu duen urte honetan, A. GARINEk Altzan izan den intsumisioaren historia agertuko digu. Gatazkak, tirabirak, pausoak, kanpainak, une larriak eta zailak barne, etorkizunerako bere proposamena luzatuko du.

A.I.T./T.R.A. siglek oso proiektu berezia ezkatzen dute: Casares Kultur Etxeko Altza Irrati Tailerra. Poliki poliki gauzatu den ideia xume bat izatetik etorkizuna gero eta zabalagoa duen eremurako bidea, L. GARMENDIaren lumari esker.

P. GONZALEZek berak dioen bezala “ziur aski pilota-jokoa izan da, eta bada, Altzako kirol-embaxadorerik onena”. Horrela izanik, kirol honek toki propioa merezi zuen bilduma honetan, zalantzarik gabe.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aurrerapauso handiak eman dira mende honetan. A. KORTAJARENak horren adibide polita isladatu du Herrerako garbitokitik abiatuz. Har dezagun zer aldatu den, eta zer ez, aztertzeko beta...

Altzako asfalto eta porlanetik gertu, badago inguru naturalak gozatzeko aukera. JOXERRAK ibilbide berri bat proposatuko digu. Beti bezala informazio zabala emanez, Aiako Harrira-ko norabidea ez galtzeaz gain inguru zoragarri honen xehetasunak ezagutuko ditugu.

L.I. VIERA lan zaila erretzen saiatu da, alegia, Altzako geologia azaltzearena, horretaz ezer ez dakigunontzat. Bere osagai desberdinak garaika azalduz, Altzako beste ikuspegi baten azterketa eskuratu digu.

Juan Mari Arzakek J.C. MORARI eta D. ZAPIRAINi eskatutako lana argitaratzeak helburu bikoitza du: lehena, guk ere zoriondu nahi diogula Jatetxeko 100. urteurrenaren dela eta; bigarrena, egileek beraiek dioten bezala Arzak sendiaren ekintza-eremuan izandako hainbat gertakizun ikusterakoan, Altzako historia ere ezagutzeko aukera izango dugula, bere pertsonaia garrantzitsuenetarikoen eskutik.

I. Karlistadan Altzak eraso larriak eta gogorrak jaso zituen, bere kokapen estrategikoaren ondorioz. C. ROQUEROk horien berri emango digu, baita horiek gainditzeko altzatarrek hartutako ez ohiko erabakienak ere.

1996an Altzako Bildumari bultzada berri bat eman genion, antolakuntza berri baten bidez. Horren aurkezpenarako C. CARRERAS gonbidatua izan genuen eta martxoaren batean plazaratu zuen hitzaldia ez galtzea izan da gure erronka, berak dioen bezala “gure tokiko bildumek herriko oroimen kolektiboa gordetzen dute. Beraz, gaurko eta biharko patrimonia osatzen dute”.

A. ALFARO y J. SERRANOK aipaturiko Altzako Bilduman ere aurki ditzakezuen argazkiak aukeratu dituzte; argazkion balioa bikoitza da: egileari -Felix Iranzo- omenaldia egitea eta “egunez egun, auzo hobeago eta solidarioago baten alde lan egiten jarraitzea”.

I. LANDAK, lau multzotan antolatutako 15 agirien bidez (Altzako Bilduman ere kontsultarako prest daudenak), Altzaren lehen independentziaren berri emango digu. Donostia eta Altzaren arteko auzia ulertzeko iragana ere ezagutu behar delako.

Tomasene baserriko leihoaren negatiboa izan da J. GARRIDOREN proposamen estetikoak liburu honen azalerako. Leihoak berak lehenaldira eramaten gaituen bitartean egileak egin dion tratamendua gaurkotasunaren kutsua ekarri digu.

Hitz batean, “Altza, hautsa kenduz”-IV aniztasunaren bilduma da. Altzatik abiatuz, bere barneko eritzi, gai, hausnarketa, sentimen eta burutazio desberdinak, bai lehengokoak bai egungoak. Elkarrengandik banatzen gaituzten desberdintasunak eta elkartzten gaituzten desberdintasunak. Eskerrik asko idatzi dituztenei, eskerrik asko irakurriko dituzuenoi.

*Donostia Kultura.*

## PRESENTACION

---

Una comunidad que conserva la capacidad de crear, sin duda, está viva. Si esto es así, Altza está más viva que nunca como lo testifican los trabajos aquí presentes.

Cada "Hautsa kenduz" tiene componentes que se repiten y componentes nuevos. Entre los primeros, y más importante, el hilo conductor de todos los trabajos: Altza. Una vez más refleja celebraciones: en 1997 el restaurante Arzak cumple 100 años y el C.D. Herrera, 50. A pesar de que, como en anteriores ocasiones este cuarto "Altza, hautsa kenduz" ha sido posible gracias a la voluntad de much@s, el olor a libro nuevo esconde las largas horas de trabajo. Nuevamente la variedad es tónica principal: estudios serios, opiniones personales, textos literarios, etc. También hemos conservado la estructura de las anteriores ediciones: se ha respetado la lengua original de cada trabajo al que se le ha añadido una pequeña introducción traducida al otro idioma.

Las novedades, obviamente, son los propios trabajos, pero también el cariño, las ganas y el empeño que se ha puesto en realizarlos. Así pues, he aquí los nuevos componentes de este cuarto libro:

Nuestro libro comienza al igual que lo suelen hacer las fiestas con la "lectura de pregón". En concreto, el que J.M. IRIGOIEN preparó con motivo de las Fiestas Euskaras, recuperadas en 1996, y que ha quedado impreso en tinta, para que el viento no se lleve la palabra.

Los cambios producidos en los últimos cincuenta años en Larratxo y Garbera son analizados por los ojos de J.M. BARANDIARAN quien siempre se nos presenta dispuesto a trabajar.

K. IZAGIRRE nos propone un bello pensamiento literario sobre el Altza actual, "una realidad amplia, plural y difícil" y convenimos con él en que a nosotros tampoco nos gustan demasiado los bosques de un sólo tipo de árbol.

Como hemos dicho, en 1997 el C.D. Herrera cumplirá 50 años. Las velas de su pastel de cumpleaños las pone uno de sus fundadores. Gracias a la memoria de J.A. IRIGOYEN conoceremos los comienzos de este club.

Un artículo aparecido en el anterior "Altza, hautsa kenduz" le da pie a L. GARMENDIA a explicar los avatares del(a) corresponsal de barrio.

La pregunta que plantea C. DIEZ es muy clara: desde el punto de vista de la igualdad social, ¿los hipermercados como el que se va a abrir en Garbera son un adelanto o un atraso?. El nos propone diversos puntos para la reflexión; la respuesta la debe dar cada cual.

En este año en que el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián se ha declarado insumiso A. Garin nos cuenta lo que ha sido la historia de la insumisión en Altza, con sus conflictos, tensiones, pasos, campañas, momentos difíciles,... y con su propuesta de reflexión para el futuro.

Las siglas A.I.T./T.R.A. esconden un proyecto muy especial: el Taller de Radio de la Casa de Cultura Casares. De la mano de L. Garmendia el camino de ser una simple idea que se ha ido fraguando poco a poco, a ser un campo que cada vez tiene un futuro más amplio.

Si como dice P. GONZALEZ “es muy posible que el deporte pelotazale ha sido y sigue siendo el mejor embajador deportivo altzatarra”, era necesario, sin duda, que este deporte tuviera su espacio propio en esta colección.

En este siglo se han dado grandes avances en el camino hacia la igualdad ente hombres y mujeres. A. KORTAJARENA refleja un bello ejemplo de ello a partir de lo que fué el lavadero de Herrera. Buena ocasión para que analicemos qué ha cambiado y qué no...

No lejos del asfalto y del cemento de Altza hay entornos naturales de que disfrutar. JOXERRA nos propone un nuevo recorrido y, como siempre, dándonos amplia información, además de no perder la orientación hacia Peñas de Aya, podremos conocer diferentes aspectos sobre tan bello paraje.

L.I. VIERA intentará facilitar un trabajo difícil: exponer la geología de Altza a quienes no sabemos nada de ello. Analizando sus diferentes componentes por épocas, nos ha posibilitado el conocimiento de otro aspecto de Altza.

Editar el trabajo encargado por Juan Mari Arzak a J.C. MORA y D. ZAPIRAIN tiene un doble objetivo: el primero, sumarnos a la felicitación por el centenario de su Restaurante; el segundo, y como dicen sus propios autores, que “al repasar ciertos acontecimientos ocurridos en el ámbito de actuación de la familia ARZAK, podremos conocer también algo más de la historia altzatarra a través de una parte relevante de sus personajes”.

Durante la 1ª Guerra Carlista Altza sufrió graves y duros ataques. C. ROQUERO nos dará cuenta de ellos y también de las decisiones, no muy habituales, que para superarlos tomaron los altzatarras de la época.

En 1996 la Colección Local conoció una nueva etapa con una nueva organización. Para su presentación contamos con la presencia de C. CARRERAS. Hemos querido que la exposición oral que realizó ese 1 de marzo no se pierda, porque como ella dice: “nuestros fondos locales conservan la memoria colectiva de la localidad. Constituyen, pues, el patrimonio de hoy y de mañana.”

A. ALFARO Y J. SERRANO han elegido las fotografías, que también podéis encontrar en dicha Colección Local y que nos sirven para dos cosas: ser un homenaje a su autor, Felix Iranzo y “seguir trabajando día a día por un barrio mejor y más solidario”.

I. LANDA, mediante quince documentos (que también se pueden consultar en la Colección Local), organizados en cuatro grupos, nos habla sobre la primera independencia de Altza. Porque para entender el conflicto entre Altza y Donostia también hay que conocer el pasado.

El negativo de la ventana del caserío Tomasene es la propuesta estética de J. GARRIDO para la portada de este libro. Mientras la ventana nos transporta hacia el pasado el tratamiento que ha hecho el autor nos acerca a la actualidad.

En una palabra, “Altza, hautsa kenduz”-IV reúne la diversidad. Con Altza como denominador común reúne opiniones, temas, reflexiones, sentimientos y pensamientos, de la Historia y del presente. Las diferencias que nos separan y las diferencias que nos unen. Gracias a quienes las han escrito, gracias a quienes las leeréis.